

Nola antolatu erakusketa bat koaderno honetatik abiatuta

Hasteko, erakusketarentzako toki bat aukeratuko dugu, baita norentzat antolatuko dugun ere. Etxeko inguruneko edo ingurune profesionaleko gela bat aukeratzen badugu (logela bat, atari bat, bulego bateko kafe gela, etab.), bizipena partekatu eta irudiei buruz hitz egin ahal izango dugu beste pertsona batzuekin. Aitzitik, kalean antolatzea erabakitzen badugu, anonimotasunaren parte izango gara, eta gure kontakizuna inpaktu bisual, mezu eta zarata desberdinen fluxu kontrolik gabearen zati izango da.

Behin espazioa aukeratuta, liburuaren orriak erakusteko erabil ditzakegun estrategiak aztertuko ditugu. Periodikoki aurkez ditzakegu, hau da, egutegi baten antzera: laminak banaka ipiniz horman, eta aldatzen joanez. Egunero alda daiteke lamina. Hala eginez gero, esperimenduak hilabete iraungo du. Beste aukera bat da irudi guztiak batera erakustea, guztiak horma berean, horma-irudi bat osatzen dutela, edo espazioan sakabanatuta, ibilbide moduko bat sortuz. Kasu batean zein bestean, irudien ordena (edo desordena) zehaztuko dugu, noranzkoaren kutsadurak eta migrazioak eragiteko. Tokiko giroa ere zainduko dugu: argi natural edo artifizial batek argiztatuko ditu irudiak, ikusleei erakusteko; argazkien inguruan hutsune bat utziko dugu, ikusleek askatasunez hurbiltzeko eta urruntzeko aukera izan dezaten, eta, amaitzeko, sofa eroso bat ipiniko dugu aretoan, une hori luzatzeko gogoa pizteko ikusleengan.

Erakusketa amaitutakoan, orriak karpetan gorde ahal izango dira; karpeta hori bizitakoaren artxibo bilakatuko da. Lanen erreproduzioekin batera, esperientzia dokumentatuko duten oharra edo argazkiak ere sartu ahal izango dira.

Amaitzeko, nabarmendu beharra dago beste jolasetan bezalaxe honetan ere aukera dagoela ez parte hartzeko eta estrategiak imajinatu bakarrik egiteko, ekintzara pasatu gabe. Hala izanez gero, koaderno ez da ukituko, eta proposamena ezkutuan geldituko da.